

1 Zer da hondakinen prebentzioa?

Hondakinik hoberena? Sortzen ez dena! Europan, udal-hondakinen ekoizpena bikoiztu egin da azken 30 urtetan, planeta zaborrontzi erraldoi bat bihurtzen ari gara. Ekin beharra dago!



Zer da prebentzioa, hondakinen?

Prebentzioa, hondakinen sorrerak ingurumenean eta osasunean ondorio kaltegarriak gutxitzeko neurriak hartzea da. Honek ondorio hauek ditu:

- Sortzen dugun hondakin kopurua gutxitzea
- Hondakin hauek, ingurumenean ahalik eta kalterik txikiena eragin dezaten saiatu, osaketa materialak kontuan hartuz,

Zergatik da garrantzitsua hondakinak gutxitzea?

Sortzen dugun hondakin kopuru izugarriak, lehengaiak eta energia xahutzea dakar eta eraldaketa klimatikoa azkartzea eta baliabide naturalak hondatzea suposatzen du. Herritarrak, zerga bidez, ordaintzen duten hondakinen tratamenduen kostuak handitzen doaz, hondakin kopuruak gora egiten duelako eta hauen kudeaketa gero eta konplexuago delako.

Ikusten duguna: Europan pertsona batek astean 10kg. hondakin sortzen ditu; baina ikusten ez duguna: europar bakoitzak astean 1.000kg baliabide ahitzen ditu kontsumitzen dituen produktuak ekoizteko.

Hondakinen Prebentzioaren Aste Europarra. Informazio gehiago: www.ewwr.eu edo www.crana.org

Iturria: Zero Study, Resource Use in European Countries, European Topic Centre on Waste and Material Flows (ETC-WMF), Kopenhagen, 2003

SORRERATIK PREBENTZIOA PRAKTIKATZEAK LAN POSTUAK SOR DITZAKE (SENTSIBILIZAZIOAN, TRESNEN KONPONKETAN, BERRERABILPENEAN ETAB.)



SUSTATZAILEA:

2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA



GARATZAILEA:



2 Hondakin gutxiago sortu

Erosten dugun janariaren heren bat bota egiten dugu. A ze zarrastelkeria!!

Nafarroan, urtean eta pertsonako, batez beste, 467 kg hondakin ekoiztera iritsi gara; hau da, astean ia 9kg pertsonako. Europan (EB-27) 522kg urtean eta pertsonako.

Jokabide jasangarria

Zaborretara egunerokoa gutxiago botatzea kontsumo arduratsua eta jasangarria praktikatzea da. Nahikoa da gure produktuak ahalik eta egokien erabiltzeko oinarrizko ohitura errazak hartu eta zaborretara gutxiago botatzea:

- Tresnak egoera onean mantendu denbora gehiago iraun dezaten.
- Iraungitze datak begiratu gutxiago xahutzeko.
- Dosi zehatzak erabili kontsumoa gutxitzeko.
- Produktua erabat bukatu arte ez hasi berri bat

Zer gertatzen da Europan hondakinekin?

- %42 zabortegietara
- %20 erraustu
- %22 birziklatu
- %17 konpostatu

Iturria: Eurostat 2009



SUSTATZAILEA:

2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA



GARATZAILEA:



3 Hobeki ekoiztu

Hondakinak prebenitzea, lehengaiak hobeki kudeatzea eta fabrikatzean sortzen diren hondakinak gutxitzea dakar enpresentzat. Aldi berean, ingurumena errespetatuko duten ideia eta produktuak proposatzea suposatzen du.

Zer da ekodiseinua?

Ekodiseinua, produktuaren bizi-ziklo guztian zehar, sorreratik amaiera arte, ingurumenean sortzen duen eragina kontuan izatean datza.

Zergatik egin ekodiseinuaren alde?

Arrazoi askorengatik!: ingurumena babestu, produkzio-gastuak murriztu, kontsumitzaileen aurrean irudi ona: ekodiseinuak abantaila asko ditu enpresarentzat.

Fabrikazio-hondakinak gutxitu eta aurreztu.

Hondakinen prebentzioa produktibitate iturria da enpresentzat, bereziki industrialentzat. Hondakinen kudeaketa gastuak gutxitzea eta materialen erosketa kostuak murriztea suposatzen du. Hondakinen prebentzioa eta aurreztea eskutik doaz!

Helburua: hondakin gutxiago, kostu gutxiago.

Europako proiektu askok erakutsi dute enpresek, hondakinak kudeatzen ikasi eta prebenituz gero, produkzio gastuak gutxienez %10an gutxitu eta hondakinen kudeaketan aurreztu egin dezaketela.



ETIQUETA ECOLÓGICA EUROPEA

Desde 1992, la «flor» simboliza la etiqueta ecológica de la Unión Europea. Garantiza al consumidor la calidad de los productos y los servicios, que son respetuosos con el medio ambiente. Hoy en día, varios centenares de productos llevan la etiqueta ecológica, que certifica la conformidad con criterios ecológicos estrictos y con criterios rigurosos de rendimiento.

Diseinu ekologikoa ez da garestiago: ingurumen-irizpideekin ekoizten diren produktu gehienak, gainontzekoen prezio berean saltzen dira.



**ETIKETA EKOLOGIKODUN PRODUKTUAK AUKERATU!
EKODISEINUAREN ALDE EGIN ETA ENPRESETAN
HONDAKINEN PREBENTZIOAN LAGUNDU**

SUSTATZAILA:

2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA



GARATZAILA:



4 Hobeki kontsumitu

Aldaketa klimatikoa eragiten duten emisioen %50 suposatzen du produktuen kontsumoak, fabrikazioa, garraioa eta banaketa barne.

Hondakinen prebentzioan funtsezkoa da erosketak egiteko unea eta ohitura erraz batzuk hartzea besterik ez du suposatzen.

Atera baino lehen.

Berrerabil daitekeen poltsa, saskia edo erosketarako orga hartu eta behar dituzun gauzen zerrenda egin. Ahal dela, erosi orde, saiatu alokatzen edo maileguan hartzen.

Dendan produktu bat aukeratu baino lehen, geure buruari galdera hauek egin:

- Produktu hau, benetan behar dut ?
- Berrerabili daitekeen edo gehiago irauten duen produkturen bat badago?
- Berriz erabiltzeko edo betetzeko balio du?
- Bilgarri gutxiagokorik, batere gabekorik edo birziklatu daitekeenik badago?
- Formatu handikorik?

Zure erosketako orga, egizu "hondar-gutxiko" orga!

- 500 euro aurreztuko dituzu pertsonako eta urteko.

- 26kg hondakin gutxiago urtean pertsonako.*

Iturria: eguneroko 150 produktu ezberdinen konparazio-azterlana, erreferentzi gisa 4 pertsonentzako erosketa-orga oinarritzat hartuta. ADEME 2009, Frantzia. Erosien diren produktuetan oinarriturik, "hondar-gutxiko" orga da hondakin gutxien sortzen dituen.



Zabor gutxiago sortzeko 5 praktika:

1. Sukalderako papera erabili orde, zapiak erabili.
2. Fruta eta barazkiak, solteak, ontziratu gabe erosi.
3. Arroza eta pasta ontzi txikitik erosi orde, ontzi handiak edo solte erosi.
4. Detergente kontzentratua (dosi egokiak errespetatuz) edo disolbatzekoa aukeratu, dosi bakarrekoa edo toailatxoak erabili orde.
5. Kargatzeko pilak erabili botatzekoen orde.

Gure aukeraketak milaka kilo hondakin suposatzen du! Egintza guztiak dira garrantzitsuak.

NAFARROAN KONTSUMO ARDURATSUAREN ALDE LAN EGITEN DUTEN ERAKUNDE EZBERDINAK DAUDE ETA GERO ETA LEKU GEHIAGOTAN EROS DAITEZKE PRODUKTU EKOLOGIKOAK ETA BIDEZKO MERKATARITZAKOAK.



SUSTATZAILEA:

2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA

Nafarroako Gobernua

GARATZAILEA:

FUNDACIÓN crana FUNDAZIOA



5 Produktuen bizialdia luzatu

Oso ohikoa izaten da erdi hondaturik edo modan ez dagoen zerbait zakarrontzira botatzea. Baina badaude irtenbide edo aukera oso errazak produktu horiei bigarren bizitza bat emateko, berrerabiltzeko edo elkartasunera bideratzeko.

Zerbait zakarrontzira bota baino lehen, egizkiozu bi galdera hauek zure buruari:

- Konpondu daiteke? Etxetresna elektrikoaren zerbitzu teknikora jotzea edo zapatariarengana joatea, adibidez, produktu berri bat erostea baino merkeago ateratzen da eta auzoko edo herriko merkataritza bultzatzen da.
- Eraldatu edo transformatu daiteke? Berriz pintatutako mahaitxo bat, neurrira egindako arropa, botila batekin egindako lorontzi eder bat.... Gauza originalak eta merkeak edukitzeko ideiak!

Gauza bat ez dugula nahi garbi badaukagu, geure buruari galdetu:

- Egoera onean dago? Hala bada, zure inguruko beste norbaitek, familiartekoak, lagun batek eta abar erabil dezake.

Europar, biztanleko, tamaina handiko 52kg hondakin (tresna elektrikoak, altzariak, arropa eta abar) botatzen ditugu urtero

Iturria: Prebentzioaren gain erreferentzia kuantitatiboaren gida, ACR+ (2009ko azaroa)



Ohitura on bat

Nafarroan mankomunitate gehienak hitzarmenak dituzte tamaina handiko hondakinak, bigarren eskuko salmenta bidez, berreskuratzen lan egiten duten entitateekin. Entitate hauek enplegua sortzen dute gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzat eta arrazoizko prezioan eskaintzen dituzte produktu asko.

Galdetu zure mankomunitatean tamaina handiko hondakinaren bilketa zerbitzuaz!

Gainera, truke azokak edota bigarren eskuko produktuen salmenta merkatuak antolatu ditzakezu zure herrian edo auzoan.



SARRITAN OBJEKTUAK BIGARREN BIZITZA BAT IZAN DEZAKEŔE. ZERGATIK UKATU?

SUSTATZAILEA:

2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA

Nafarroako Gobernua

GARATZAILEA:

FUNDACIÓN crana FUNDAZIOA



6 Prebentzioa praktikatzeko zenbait ideia

- Ontziratu gabeko produktuak erosi.
- Ahal bada, txorrotako ura edan
- Ez onartu publizitaterik zure postontzian
- Erabili eta botatzeko diren mukizapi, trapu eta eskuoihalak erabili ordeztuz, telazkoak erabili.
- Erabiltzen ez ditugun gauzak oparitu edo trukean eman (arropa, jostailuak...)
- Askaria eta gosaria kutxatxotan edo telazko poltsetan eraman
- Berrerabiltzeko pilak dituzten produktuak edo pilarik gabekoak erabili
- Berrerabili edo gure produktuen berrerabilpenaren alde egin
- Mailegu edo liburutegi zerbitzuetara jo
- Bigarren eskuko denda eta azoketan erosi
- Etxetresna elektrikoak, altzariak eta arropa, berriak erosi ordeztuz, konpondu
- Papera bi aldetatik erabili eta inprimatzea murriztu
- Produktu ekologikoak edo ekodiseinatuak erosi

Gero eta pertsona gehiagok egiten dute konposta etxean eta komunitatean: Aranguren eta Altsasuko Udalak, Bortzirietako, Iruñerriko, Mairagako, Sakanako eta Iltzarbeibarreko mankomunitateak, etab.



Konposta

Etxean egindako konposta balio handiko prebentzio jarduera da, erdira murrizten baita bildu, garraiatu eta tratamendu instalazioetan kudeatu behar diren hondakinak. Europan, bataz beste, urtean eta pertsonako sortzen diren 200kg hondakinekin ez zaigu faltako konposta egiteko materialik edo gure lorategi eta baratzerako ongarririk.

Zer konpostatu daiteke?

1. Sukaldeko eta lorategiko hondarrak (janari hondarrak, azalak, kafe hondarrak, te polt-satxoak, sukaldeko papera, paperezko ezpain-zapiak, soropila, hostoak, zimeldutako loreak, lastoa etab.).
2. Landare-hondar birrinduak (inausketa eta adarrak).

Nola egiten da?

Sukaldeko eta lorategiko hondakinak birrindutako landare-hondarrekin nahastu. Nahasketa aireztatzeko irauli eta noizean behin behatu.

Konposta 4 eta 8 hilabeteren buruan lortuko dugu, segun eta zein motatako hondakinak erabili ditugun eta nolako ingurumen-baldintzak eman diren.



HONDAKINAK GUTXITZEA, EKITEA DA.

SUSTATZAILEA:

2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA

Nafarroako Gobernua

GARATZAILEA:

FUNDACIÓN crana FUNDAZIOA

